

UNITATE DIDAKTIKOAK EGITEA ETA EBALUATZEA HEZKUNTZA-ESPARRU BERRIAN



1. UNITATE DIDAKTIKOAK EGITEKO ETA EBALUATZEKO
ORIENTAZIOAK
2. UNITATE DIDAKTIKOAK EGITEKO ETA EBALUATZEKO
IRIZPIDEAK

1. UNITATE DIDAKTIKOAK EGITEKO ETA EBALUATZEKO
ORIENTAZIOAK

ESKEMA

I.- UNITATE DIDAKTIKOAREN ARTIKULAZIOA

1. *irizpidea*- Unitate didaktikoak duen koherentzia eta egokitasuna hezkuntza-sistemarako ezarritakoarekiko (Dekretuak eta Eranskinak)
2. *irizpidea*- Unitate didaktikoak duen koherentzia eta egokitasuna ikastetxeak ezarritakoarekiko (ICP eta PD)

II.- UNITATE DIDAKTIKOAREN KOHERENTZIA ETA EGOKITASUNA

3. *irizpidea*- Unitate didaktikoaren egiturak eta osagaiak duten koherentzia eta egokitasuna konpetentzien araberako hezkuntza-ikuspegiarekiko:

- A.- Irakaskuntza-ikaskuntza jardueren sekuentzia:
 - Hasierako fasea
 - a) *Gaiaren aurkezpena eta hasierako ebaluazioa*
 - b) *Unitate didaktikoaren aurkezpena eta lanaren plangintza*
 - Garapen-fasea
 - a) *Ikaskuntza berriak txertatzeko jarduerak*
 - b) *Ikaskuntza berriak aplikatzeko eta finkatzeko jarduerak*
 - c) *Ikaskuntzak egituratzeko jarduerak*
 - Aplikazio- eta komunikazio-fasea
- B.- Orokortzea eta transferentzia

KONPETENTZIEN ARABERAKO HEZKUNTZARAKO METODOLOGIA

4. *irizpidea*- Metodologiak duen koherentzia eta egokitasuna konpetentzien araberako hezkuntzaren ikuspegiarekiko:
 - Zeharkako oinarrizko konpetentzien garapena
 - Aniztasunari arreta eskaintzea
 - Unitate didaktikoaren garapenean baliabideak integratzea
 - Denboraren eta espazioaren antolamendua

Dokumentu honen helburua da, Heziberri 2020 esparru pedagogikoaren egungo curriculum-garapenaren barruan, unitate didaktikoak egiteko eta/edo ebaluatzeko prozesuan aintzat hartu beharreko irizpideak aurkeztea.

I.- UNITATE DIDAKTIKOAREN ARTIKULAZIOA

Unitate didaktikoan era koherentean zehaztu behar dira Dekretuetako eta Eranskinetako curriculum-elementuetan adierazitako hezkuntza-jarduketak —1. Irizpidea—.

Unitate didaktikoak ikastetxearen asmoen eta irakaskuntzaren arteko koherentzia ziurtatu behar du. Beraz, maila bakoitzean garatzen diren unitate didaktikoek Ikastetxearen Curriculum Proiektuan eta maila bakoitzerako Programazio didaktikoan ezarritako helburuak, edukiak eta irizpideak antolatu, garatu eta zehaztu behar ditu —2. Irizpidea—.

Irakasleek ez dituzte unitate didaktikoak modu independentean egin behar, hezkuntza-administrazioaren aginduetatik kanpo edo ikastetxeak hartzen dituen erabaki orokorretatik eta zikloek edo departamenduek egiten dituzten Programazio didaktikoetatik aparte. Aitzitik, unitate didaktikoak hezkuntzaren esku-hartze orokorrari lotutako plangintza-prozesuko azken puntutzat hartu behar dira.

II.- UNITATE DIDAKTIKOAREN KOHERENTZIA ETA EGOKITASUNA

Unitate didaktikoak praktika pedagogikoa egituratzen du eta praktika didaktikoaren plangintzarako, analisirako eta ebaluaziorako erabakiak hartzen laguntzen du.

Beraz, beharrezkoa da unitate didaktikoaren eredu bat, oinarritzko konpetentziak garatzen laguntzen duten planteamendu metodologikoekin bat eginez, ikasgelako jarduerak planifikatu eta antolatuko dituen.

Hau da dokumentu honetan aurkezten den unitate didaktikoaren ereduak: koordinatutako jarduera-multzo bat, helburu batera, produktu batera eta amaierako lan batera bideratutakoa.

Unitate didaktikoak ezaugarri hauek ditu:

- Programazio didaktikoaren barruan lan-unitate gisa identifikatu behar da.
- Bizitza errealari loturiko arazo-egoerak planteatu behar ditu.
- Ikasleen bizitzaren testuinguruak adierazi behar ditu.
- Ikaskuntza-helburu argiak eduki behar ditu.
- Ebaluazioa barne hartu behar du, prozesuaren ezinbesteko zatia baita.
- Ikasitakoa egoera berrietan erabiltzen lagundu behar du.

Unitate didaktikoa planteatzeko modu honek ikaskuntza-eduki guztiak integratu eta modu koherentean antolatu behar direla azpimarratzen du, beste material askok erakusten duten gehiegizko zatikatzearen aurrean, ikasketa global eta aktiboaren mesedetan. **Eginez Egiten ikastea** sustatzen duenez, zentzua eta funtzionalitatea ematen die eduki horiei.

Horregatik, unitate didaktikoak oinarrizko kompetentziak garatzen laguntzen duten printzipio metodologiko hauekin koherentea izan behar du:


- **Ikasgelan giro egokia sortzea:** ikasgelako giro afektiboa zaintzea, ikasleek dituzten aukerei adi egotea, eta abar.
- **Partaidetza-estrategiak sortzea:** zalantzak planteatzea, ikaskuntza funtzionalak helburu jakin batekin aurkeztea, eta abar.
- **Ikaskuntza-helbururako motibatzea:** ikaskuntza-helburuak jakinaraztea, ikasleekin negoziatzea, eta abar.
- **Ikaskuntzaren autonomia sustatzea:** metodo transmisiboak era mugatuan erabiltzea, irakasleen eta ikasleen egitekoak aldatzea, eta abar.
- **IKTak modu integratuan eta esanguratsuan erabiltzen direla sustatzea:** baliabide digitalak erabiltzea (esaterako, webquest-ak, altxorraren bila, blogak), ICTak erabiltzea ikasteko eta ikasgelako kideen arteko komunikaziorako, eta abar.
- **Hainbat informazio-iturri erabiltzen direla sustatzea:** ikasliburua ez da informazio-iturri bakarra; informazio-iturrietarako sarbidea gidatzea, eta abar.
- **Ikasitakoaren ahozko edo idatzizko komunikazioa bultzatzea:** ikasitakoa komunikatzea, berdinen arteko interakzioa sustatzea jakintza eraikitzeko, eta abar.
- **Ebaluazio hezigarria sustatzea:** autorregulaziorako egoerak sortzea, ebaluazio-irizpideak jakinaraztea, autoebaluazioa indartzea, eta abar.
- **Espazioaren eta denboraren hainbat antolamendu bultzatzea:** ikasgelako espazioaren antolamendua aldatzea, lan-saioen iraupena malgutzea, eta abar.
- **Ikasitakoaren funtzionaltasuna ikas eremutik kanpo sustatzea:** ikasgai guztien arteko erlazioaren alde egitea, metodologia globalak erabiltzea, eta abar.

Ángel Pérez Gómez

Era berean, ebaluazioak, ikasteko eta irakasteko prozesuaren funtsezko elementua izanik, unitate didaktikoaren fase guztietan agertu behar du. Planteamendu horrek haxe dakar: unitate didaktikoaren fase guztietan ebaluazio-jarduerak planifikatu beharra; izan ere, jarduera horiei esker, unitatea garatu ahala, hura erregulatu, aldatu eta egokitu egin ahal izango da.

Proposatzen den unitate didaktikoaren ezaugarriek alderdi horiek jasotzen dituzte.

UNITATE DIDAKTIKOAREN EGITURA ETA OSAGIAK –3. irizpidea-



	<p>komunikatzeko jarduerak.</p> <p>Ikasitakoan sakontzeko jarduerak eta ikasteko erabilitako estrategiez eta eskuratutako trebetasunez konturatzeko jarduerak.</p>	<p>betetze-maila egiaztatzea.</p> <p>Ikasleen parte-hartzea (autoebaluazioa eta koebaluazioa)</p>
--	--	---

OROKORTZEA ETA TRANSFERENTZIA
<p>Fase honetan, jakintza zehatza (egoera zehatz batean jasotakoa) orokortu daitekeen jakintza bihur daiteke, antzeko egoeretan erabil daitekeena.</p>

A IRAKASKUNTZA ETA IKASKUNTZA JARDUEREN SEKUENTZIA

1. HASIERAKO FASEA

Fase honetan bi alderdi garrantzitsu daude: batetik, gaiaren aurkezpena eta hasierako ebaluazioa egitea, diagnostiko gisa; eta, bestetik, unitate didaktikoa eta haren lan-plangintza aurkeztea

a) Gaiaren aurkezpena eta hasierako ebaluazioa

Unitate didaktikoaren abiapuntua da egoera erreal edo simulatu esanguratsuak diren arazo-egoerak planteatzea; horiei irtenbidea emateko, unitatean ikasiko eta garatuko diren konpetentziak edo konpetentzia horien osagai batzuk eta edukiak beharko dira.

Arazo-egoeraren ezaugarriak hauek dira:

- Ikasleek jaso dituzten hainbat eduki mobilizatzen duen egoera konplexua da.
- Ikasleek erraz identifika dezaketen emaitza bat espero da: arazo bati irtenbidea ematea, arte-objektu bat egitea, objektu funtzional bat egitea, jardunbide plan bat egitea...

Fase honen helburuak honako hauek dira: ikasleak motibatzea eta ikasi beharrekoaren puntu nagusien berri ematea, modu argian jakinaraztea zer helburu lortu nahi den, zer lan-mota egin behar den eta hori lortzeko aurreikusi diren baliabideak.

Fase honetan, hasierako ebaluazioaren bidez, alderdi hauei buruzko datuak lor daitezke: ikasleek aurrez dakitena, haien bat-bateko arrazoiketa, emaitza jakin batera iristeko erabiltzen dituzten estrategiak, beren ohiturak, proposatutako eginkizunak irudikatzeko moduak...

Diagnostiko hau hasierako erreferentzia bat ere bada ikasleentzat. Diagnostiko honek aukera ematen du ikasleak dakitenari eta ez dakitenari buruz jabetzeko, zalantzak eta pentsatzeko zein jarduteko moduak identifikatzeko, arazo-egoera jakin baten inguruan hura ebazteko bestelako erak badaudela onartzeko eta beren ikuspuntuak zalantzan jartzeko. Ikaskuntza-prozesuaren autorregulazioa egiteko aukera ematen du.

b) Unitate didaktikoaren aurkezpena eta lanaren plangintza

Unitate didaktikoaren hasierako fasean beharrezkoa da ikasleekin adostea zer eta zertarako ikasiko duten. Garrantzitsua da proposatutako ikaskuntzaren helburuak eta arrazoiak zehaztea eta proposatutako ikaskuntza horiei buruz ikasleek irudikatzen dutena bideratzea. Prozesu honetan, oso garrantzitsua da ikasleen artean interakzioak sustatzea, martxan jarri den lan-unitatearen helburuak hitzez adieraziz eta esplizitatuz.

2. GARAPEN-FASEA

Fase hau da unitateak duen atalik luzeena; bertan, ikaskuntzarako eta ebaluaziorako egoerak eta jarduerak garatzen dira eta horiek guztiek ikaskuntza eraikitzen eta ikaskuntza hori egoera berrietan aplikatzen eta erabiltzen laguntzen dute. Fase honetan, estrategia hauek aurreikusi behar dira: ikaskuntza esanguratsua errazten dutenak (informazioa bilatzeko eta kudeatzeko jarduerak, esploratzeko jarduerak, aplikatzekoak, egituratzekoak, edukiak berenganatzeko jarduerak...), autonomia-gaitasunaren garapena sustatzen dutenak (erabakiak hartzea eta

konpromisoak betetzea eskatzen duten jarduerak, autorregulazioa sustatzen duten jarduerak), erlazio soziala sustatzen dutenak (elkarlaneko ikaskuntza eta ikaskuntza kooperatiboa sustatzen duten jarduerak, entzute aktiboa eta enpatia sustatzen duten jarduerak, eta abar) eta gizarteratze kritikoa sustatzen dutenak (analisi eta iritzi kritikoari buruzko jarduerak, gatazken negoziazioa eta konponbidea eskatzen duten jarduerak...).

Erregulazioa alderdi garrantzitsua da fase honetan. Beharrezkoa da unitatea planifikatzea, baina beharrezkoa da, halaber, plangintza horrek erabakiak hartzeko aukera ematea prestakuntza-prozesuan gertatzen diren behar, arazo eta egoeretara egokitu dadin.

Erabakietako batzuk ikasleek hartuko dituzte, ikaskuntza-prozesuaren zuzeneko protagonistak baitira. Ildo horri jarraikiz, autoebaluazio- eta koebaluazio-jarduerak funtsezko garrantzia dute.

Garapen fasean, hainbat une eta jarduera proposatzen dira:

a) Ikaskuntza berriak txertatzeko jarduerak

Jarduera horien xedea da ikasleek jakintza, esperientzia, informazio, kontzeptu, prozedura eta teknika berriak jasotzea. Puntu honetan garatzen dira unitateko ikas-irakaskuntza jarduera gehienak.

Fase honetan, taldeko kideen parte-hartzea eta kide horien arteko interakzioa eskatzen duten jarduerak garrantzi berezia hartzen dute ikasleek jakintza berriak jaso ditzaten.

b) Ikaskuntza berriak aplikatzeko eta sendotzeko jarduerak

Aplikazio-jarduerak eduki berriak erabiltzera bideratuta daude, eduki horiek bermatu, indartu eta sakondu daitezten. Une honetan, hasierako arazoari lotutako datu garrantzitsuak hautatzeko eta lehenesteko jarduerak egingo dira eta horiekin batera, aurretiazko hipotesiak edo ideiak balioztatzeako argudioak egiteko jarduerak.

Aplikazio-jardueretan ere beharrezkoa da ikaskideen partaidetza eta interakzioa sustatzea, jarduera burutzeko egin behar izan diren ekintzei buruz gogoeta eginez, haiek hitzez adieraziz eta kideen artean erkatuz eta alderatuz.

c) Ikaskuntzak egituratzeko jarduerak

Jarduera hauek ikasleek jakintza berria berrantolatzeke balio dute, baita ordura arte ikasitakoarekin erlazioak egiteke ere. Beharrezkoa da ikasle bakoitzak lan pertsonal bat egitea (txosten bat, maketa bat, ikerketa-lan bat, mapa kontzeptual bat, eskema bat, diagrama bat...) irakaslearen lanarekin edo gainerako ikasleen lanekin alderatu ahal izateke. Ikaskuntza bera laburtzeko askotariko moduek eta modu horien arteko aldeek ikaste-prozesu luze eta konplexuan aurrera egiten laguntzen dute.

Garapen fasean, jardueretako batzuek ebaluazio hezigarri eta prozesualaren funtzioa izan behar dute; izan ere, irakasleek ikasleek dituzten zailtasunak eta egin dituzten aurrerakuntzak jakiteke balio dezakete eta, horren arabera, prozedurak egokitu. Baina, era berean, ikasleei laguntzen diete ikasitakoaz konturatzen, eta dakitenari eta ez dakitenari buruz jabetzen.

3. APLIKAZIO- ETA KOMUNIKAZIO-FASEA

Fase honetan, amaierako emaitza komunikatu eta zabaltzen da. Emaitza horrek emango dio irtenbidea hasierako arazoari. Une honetara arte egindako lanak aukera ematen du ezagutza eskuratzeko, kasu gehienetan, analitikoa izan ohi dena. Horregatik, fase honetan integrazio-jarduerak egin behar dira; planteatutako egoerarekiko erlazioak eta haren interpretazio globala egin behar da.

Fase hau amaitzeko, beharrezkoa da ikasleek lortutako emaitzaren eta ondorioen berri emango duten jarduerak egitea.

Proposatutako ataza burutu ondoren, komeni da ikasleek ebaluazio-prozesuan (autoebaluazioa eta koebaluazioa) parte hartzea; izan ere, prozesu horiek lagunduko diete honako hauek egiten:

- Burututako prozesuaren eta esperotako emaitzaren arteko aldeez jabetzen.
- Ebaluazio-irizpideak barneratzen.
- Esperotako emaitzaren hainbat ikuspegiren arteko aldeak ikusten.
- Akatsak kudeatzen eta haiek hobetzeko eta gainditzeko ekintzak planifikatzen.

Laburbilduz, jarduera hauek ikasleei ikaskuntzan sakontzen eta beren ikaskuntza-estrategiez eta, horrenbestez, garatutako trebetasunez jabetzen laguntzen diete. Modu horretan, ikasten ikasteko eta izaten ikasteko konpetentziak garatzen dituzte.

B) OROKORTZE- ETA TRANSFERENTZIA-FASEA

Fase honetan, ikasleek eskuratutako ikaskuntzak integratzen eta, aurrez jasotako beste ikaskuntza batzuekin batera, ikaskuntza horiek mobilizatzen ikasten dute, egoera konplexu berriak konpontzeko. Unitatearen azken fase hau oso garrantzitsua da, zeren prozesua ixteko laburpen bat egin behar baita; hala, unitatean zehar landu diren edukiak eta konpetentziak laburbildu eta erlazionatu egin behar dira laburpen horretan. Fase honetan, egoera zehatz batean jasotako ezagutza orokortu daitekeen jakintza bihurtu daiteke, antzeko egoeretan erabili daitekeena.

Orokortzea ezin da abstrakzio-prozesu bakar batean egin, baizik eta konpetentzia bat testuinguru askotan erabili behar da eta horri esker pasa daiteke ezagutza testuinguru batetik beste batera.

Irakasleei dagokienez, orokortze eta transferentzia faseak ebaluazio batutzailerako balio du; izan ere, taldearen eta ikasle bakoitzaren aurrerapena jakin daiteke. Ikasleei dagokienez, ikaskuntza-prozesuaz jabetzeko balio du, baita ikasitakoa beste egoera batzuetan aplikatzeko ere.

Fase bakoitzean adierazitako irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduerak ez dira inola ere unitate didaktikoan elkarren segidan egin beharreko pauso edo uneak, baizik eta askotariko gurutzatzeak, artikulazioak eta ordenamenduak onartzen dira, egitura malgu, mugigarri eta ebolutibo baten barruan. Izan ere, egitura horrek forma berriak hartzen ditu; betiere, ezarritako helburuen arabera garatzen den heinean.

KONPETENTZIEN ARABERAKO HEZKUNTZARAKO METODOLOGIA -4.

irizpidea-

Konpetentzien araberako hezkuntza-garapena ikaskuntzaren ikusmolde konstruktibista eta sozialaren barnean dago. Ikusmolde horren arabera, jakintza pertsonak hainbat testuingurutan duen jardueraren emaitza da.

Horregatik, aurretiazko eskemak eta jakintza mobilizatzeko helburuarekin, hauxe egin behar da:

- Ikasleak egoera jakin batean kokatu, lehendik dakitenetik abiatuta jakintza eraikitzeke eran.
- Interakzio sozialen antolamenduarekin zerikusia duten alderdiei dagokienez, arreta bereziarekin jardun.
- Ikasleek ingurune fisikoarekin eta sozialarekin interakzioa izatea sustatu.

Azken batean, curriculumean oinarritzko konpetentziak egoteak honako ondorioak ekar ditzake: irakaskuntzaren funtzioa birplanteatzea, Oinarritzko Hezkuntzako arlo, ikasgai eta etapa bateko eta besteko irakasleak antolatzeke eta koordinatzeke modu berriak eta hezkuntza-komunitatearen arteke beharrezko lankidetzak, irakaskuntza-prozesuak denek bat eginda lantzeke.

Horrela, hainbat inplikazio metodologiko ondoriozta daitezke ikasgelan lantzeke:

.- Zeharkako oinarrizko konpetentzien garapena

Zeharkako oinarrizko konpetentziak beharrezkoak dira arazoak modu eraginkorrean konpontzeko bizitzaren eremu (pertsonala, akademikoa, soziala, lan-eremua) eta egoera guztietan. Arlo edo ikasgai guztien elkarlanetik abiatuta sustatu eta indartu behar dira eta, horregatik, unitate didaktikoak fase guztietan garatu behar ditu. Beraz, unitate didaktikoan oso kontuan hartu behar dira eta ikasleei aukera eman honako hauek egiteko:

- Komunikatzen ikasteko, hau da, hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazio digitala erabiltzeko, ganoraz eta egoki komunikatu ahal izateko eremu pertsonal, sozial eta akademikoetan.
- Ikasten ikasteko, hau da, ikasketa- eta lan-ohiturak, ikaskuntza-estrategiak eta pentsamendu zorrotzaren estrategiak jasotzeko eta beren ikaskuntza era autonomoan antolatzeko.
- Elkarbizitzen ikasteko, hau da, denetariko pertsonarteko egoeretan, talde-egoeretan eta komunitate-egoeretan parte hartzeko, entzute aktiboa eta enpatia sustatzeko eta beste pertsonen beren buruari onartzen dizkieten eskubide eta betebeharrak berdinak aitortzeko.
- Ekiten ikasteko, hau da, beren lana planifikatzen dutenean ekimena dutela adierazteko adoreaekin, efikaziarekin, ardurarekin eta hainbat testuingurutan zein eremu pertsonal, sozial, akademiko eta laboraletan printzipio etikoak errespetatuta.
- Izaten ikasteko, hau da, autorregulatzen ikasteko eta sentimenduei, pentsamenduei eta bizitzako hainbat eremu eta egoeratan gertatzen diren ekintzei buruz gogoeta egiteko.

.- Aniztasunari arreta eskaintzea

Aniztasunari arreta eskaintzea hezkuntzaren funtsezko puntuetako bat da, eta horretan inplikaturik daude ikasteko eta irakasteko prozesuan parte hartzen duten aldagai guztiak. Horien artean daude unitate didaktikoak.

Atal honetan, aniztasunari erantzuna eman behar dioten adierazleak jasotzen dira, hala nola edukien zein horien egokitzapenaren tratamendua, edukien errefortzua edo sakontzea eta lan egiteko modu desberdinak errazten dituzten hainbat estrategia metodologiko, baita material osagarrien erabilera ere.

.- Unitate didaktikoaren garapenean baliabideak integratzea

Atal honetan, askotariko baliabideen eta IKTen erabilera egiaztatzen duten adierazleak agertzen dira: hizkuntzaren erabilera-eremu eta testu askotarikoak, hainbat informazio mota eta iturri mota, teknikak, hainbat euskarri eta lengoaiatako baliabideak, askotariko materialak, ordenagailu bidezko esperimentazioa, simulazioak, mikroskopia digitalak, inguruko tokiak, laborategiak, enpresak, museoak, auditoriumak, eta abar.

.- Denboraren eta espazioaren antolamendua

Atal honetan hauxe aipatzen da: espazioak egokitu eta denbora-tarteak malgutu eta egokitu behar dira ikasleek garatuko dituzten jardueren eta atazen arabera.

.- Ikasleak elkartzeko antolamendua

Atal honetan, ikasleen elkarketak antolatu beharra hartzen da kontuan. Hala, taldekatze-mota askotarikoak sustatu behar dira: bakarkako lanerako, talde-lanerako, elkarlanerako, lan kolektiborako, esperientzia partekatuetarako (enpatia, gainerakoen ideiak baloratzea, elkarrizketa, negoziazioa)...

Metodologia, azken finean, hauxe da: nola irakatsi gelan. Beraz, konpetentzien araberako metodologiari buruzko atal honetako alderdi guztiak unitate didaktikoaren fase guztietan islatuko dira.

2. UNITATE DIDAKTIKOAK EGITEKO ETA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

I.- UNITATE DIDAKTIKOAREN
ARTIKULAZIOA

II.- UNITATE DIDAKTIKOAREN
KOHERENTZIA ETA
EGOKITASUNA

1. irizpidea- Unitate didaktikoak duen koherentzia eta egokitasuna hezkuntza-sistamarako ezarritakoarekiko (Dekretuak eta Eranskinak).

2. irizpidea- Unitate didaktikoak duen koherentzia eta egokitasuna ikastetxeak ezarritakoarekiko (ICP eta PD).

3. irizpidea- Unitate didaktikoaren egiturak eta osagaiak duten koherentzia eta egokitasuna kompetentzien araberako hezkuntza-ikuspegiarekiko.

4. irizpidea- Metodologiak duen koherentzia eta egokitasuna kompetentzien araberako hezkuntzaren ikuspegiarekiko.

I.- UNITATE DIDAKTIKOAREN ARTIKULAZIOAREN BALORAZIOA

(Markatu unitate didaktikoak betetzen dituen adierazleak)

1. irizpidea- Unitate didaktikoak duen koherentzia eta egokitasuna hezkuntza-sistamarako ezarritakoarekiko (Dekretuak eta Eranskinak)

ADIERAZLEAK	
Helburu didaktikoek oinarrizko kompetentziak, zeharkakoak eta diziplina baitakoak, islatzen dituzte.	
Helburu didaktikoak koherenteak dira arloaren edo ikasgaiaren helburuekin.	
Helburu didaktikoak koherenteak dira ebaluazio-irizpideekin eta lorpen-adierazleekin.	
Hautatuko edukiek ebaluazio-irizpideak eta lorpen-adierazleak lortzen laguntzen dute.	
Edukiak EAEko curriculumean ezarritako edukiak aintzat hartuta hautatu dira.	

2. irizpidea- Unitate didaktikoak duen koherentzia eta egokitasuna ikastetxeak Ikastetxeko Curriculum Proiektuan eta Programazio didaktikoan ezarritakoarekiko

ADIERAZLEAK

Helburu didaktikoak koherenteak dira Ikastetxearen Curriculum Proiektuan eta Programazio didaktikoan adierazitako kompetentziekin eta helburuekin.	
Hautatuko edukiek Ikastetxearen Curriculum Proiektuan eta Programazio didaktikoan ikasle guztientzat planteatutako oinarrizko kompetentziak eta helburuak garatzea errazten dute.	
Ebaluazio-irizpideak erlazionatuta daude Ikastetxearen Curriculum Proiektuan eta Programazio didaktikoan proposatutakoekin.	

II.- KOHERENTZIAREN ETA EGOKITASUNAREN BALORAZIOA KONPETENTZIEN ARABERAKO HEZKUNTZA-IKUSPUNTUAREKIKO

3. irizpidea- Unitate didaktikoaren egiturak eta osagaiek duten koherentzia eta egokitasuna kompetentzien arabera hezkuntza-ikuspegiarekiko

A.- Irakaskuntza/ikaskuntza jardueren sekuentzia:

Hasierako fasea

ADIERAZLEAK	
Unitate didaktikoa arazo-egoera baten inguruan dago egituratua.	
Arazo-egoera oinarrizko kompetentziei lotutako eremuekin eta familia-egoerekin lotuta dago.	
Arazo-egoera garrantzitsua eta esanguratsua da unitate didaktikorako aurreikusitako kompetentziekiko.	

<p>Arazo-egoeraren inguruko jarduerak egokiak dira ikasleek konpondu beharreko erronka uler dezaten.</p>	
<p>Jarduera egokiak proposatzen dira ikasleen aurretiazko jakintza diagnostikatzeko.</p>	
<p>Plangintza-jarduera egokiak dira ikasleek lan-plana irakasleekin adosteko eta argiro jakiteko zergatik, zer, nola eta noiz egin behar den planifikatutakoa.</p>	
<p>Garapen-fasea</p>	
<p>ADIERAZLEAK</p>	
<p>Informazioa jasotzeko eta/edo esploratzeko bilaketa- eta kudeaketa-jarduerak egokiak dira, ikasleek beharrezkoak diren edukiak lortzeko.</p>	
<p>Pentsamendu ulerkorra garatzeko jarduerak egokiak dira ikasleek beharrezko edukiak berenganatzeko.</p>	
<p>Pentsamendu kritikoa garatzeko jarduerak egokiak dira ikasleek edukiak balora ditzaten.</p>	
<p>Aplikazio-jarduerak egokiak dira ikasleek eduki berriak integratzeko eta sendotzeko.</p>	
<p>Egituratzeko-jarduerak egokiak dira ikasleek eduki berriak aurretiazko ezagutzetara moldatzeko.</p>	
<p>Edukiak berenganatzeko, aplikatzeko eta egituratzeko jarduerak egokiak dira arazo-egoerari irtenbidea emateko eta ikasleek beharrezko edukiak jasotzeko.</p>	

Integrazio-jarduerak egokiak dira ikasleek edukiak eta eskura dituzten baliabideak modu integratuan mobilizatzen ikas dezaten.

Fase honetako jarduerak aukera ematen dute unitate didaktikoan aurreikusitako zeharkako eta diziplina baitako konpetentzien autorregulazioa eta ebaluazioa egiteko (bai prozesuala bai batutzailea).

Aplikazio- eta komunikazio-fasea

ADIERAZLEAK

Fase honetako jardueren bidez, hasierako hasierako arazo-egoerari erantzuna ematen zaio.

Amaierako emaitzak komunikatzeko jarduerak daude.

Fase honetako jardueren bidez, prozesua eta ikaskuntza ebaluatu daitezke.

B.- Orokortzea eta transferentzia

ADIERAZLEAK

Integrazio-jarduera berriak egokiak dira ikasleek ikasitako edukiak beste arazo-egoera batzuetara modu integratuan transferitzeko.

Laburbiltzeko jarduerak egokiak dira ikasleek, adostutako hasierako planari helduz, jarraitutako prozesua eta lortutako emaitzak berrikusteko eta autoebaluatzeko.

4. irizpidea- Metodologiak duen koherentzia eta egokitasuna kompetentzien araberako hezkuntzaren ikuspegiarekiko.

Zeharkako oinarrizko kompetentzien garapena.

ADIERAZLEAK

Unitate didaktikoan ikasleek komunikatzen ikasteko aukerak ematen dira:

- ideiak, sentimenduak, ikuspuntuak hitzez (ahoz eta idatziz) adierazteko, partekatze eta alderatzeko
- ideiak, sentimenduak, ikuspuntuak hitzik gabe (gorputzaren bidez, musikarekin, hizkuntza plastikoarekin, eta abar) adierazteko, partekatze eta alderatzeko
- ideiak, sentimenduak, ikuspuntuak IKTen bidez adierazteko, partekatze eta alderatzeko

Unitate didaktikoan ikasleen protagonismoa eta ikasten ikasteko prozedurak eta jarrerak sustatzen dira, hala nola:

- informazioa bilatzea eta kudeatzea
- informazioa interpretatzea pentsamendu ulerkorra erabilita
- informazio sortzea pentsamendu sortzailea erabilita
- informazioa ebaluatzea pentsamendu kritikoa erabilita
- ikaskuntza- eta metakognizio-prozesua autorregulatzea

Unitate didaktikoan aukerak ematen dira ikasleek elkarlanean eta modu kooperatiboan ikasteko eta elkarbizitzen ikasteko:

- berdinen arteko ikaskuntza sustatzea
- entzute aktiboa eta enpatia sustatzea
- beren kideei laguntzea
- gatazka batean negoziatzen eta irtenbideak bilatzen ikastea
- ardurak eta protagonismoa banatzea

Unitate didaktikoan aukerak ematen dira ikasleek egiten eta ekiten ikasteko:

- beren lana planifikatzea
- planifikatutako lana implementatzea autonomiarekin eta ardurarekin
- arriskuak, arrakastak eta akatsak onartzea
- erabakiak hartzea
- konpromisoak betetzea

Unitate didaktikoan ikasleek autorregulatzen ikasteko aukerak ematen dira:

- ekintzaren autorregulazioa
- ikaskuntzaren (ikaskuntza-estiloaren) autorregulazioa

Ikasleen aniztasuna kontuan hartzea

ADIERAZLEAK

Edukien tratamenduak kontuan hartzen du aniztasuna: edukietan sakontzeko eta edukien errefortzua eta egokitzapena egiteko aukera ematen du.

Estrategia metodologikoei hainbat laguntza motatarako aukera ematen dute: biren arteko tutoretza, beste pertsona heldu batzuen esku-hartzea, material osagarrien erabilera.

Unitate didaktikoaren garapenean baliabideak integratzea

ADIERAZLEAK

Unitate didaktikoan irakaskuntza- zein ikaskuntza-prozesuak sustatzen dituzten askotariko baliabide didaktikoak proposatzen dira.

Unitate didaktikoan irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak bermatzen dituzten baliabide digitalak integratzen dira.

Denboraren eta espazioaren antolamendua

ADIERAZLEAK

Unitate didaktikoaren saio-kopurua koherentea da helburuekin.

Espazioaren antolamendua koherentea da unitate didaktikoa garatzeko beharrezkoa den metodologiarekiko.

Ikasleak elkartzeko antolamendua

ADIERAZLEAK

Ikasleak elkartzeko erak koherenteak dira unitate didaktikoa garatzeko behar den metodologiarekin eta aurreikusitako konpetentzien garapenarekin.

Ikasle-elkartzeen antolamenduak elkarlan-prozedurak eta prozedura kooperatiboak sustatzen ditu.